



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-04-02**

VIURTEA 1.397.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE** KOMIKILARIA

## «Zirikatzea, pentsaraztea eta irribarrea sortaraztea da helburua»

**TOLOSA** Kultur Etxean daude ikusgai Antxustegietxartek 'Galtzaundi' aldizkarirako 11 urtetan eginiko komikiak

**ANITZAK** «Tolosako hainbat alkateri zuzenduak badaude, eta baita beste askori ere; ni ere azaltzen naiz», dio 3



I. TERRADILLOS



I.G.

**IGOR SARASUA** ERREMONTISTA

«Galarretan eman dut bizi guztia; pilotak dena eman dit»

**ASTEASU** 13 urtez aritu da gorengoan mailan; pasa den asteburuan jokatu zuen azken partida 4

## HITZAren bosgarren urteurrena ospatzeko, adin guztiei zuzendutako ekitaldiak


**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** Larunbatean izango da jaialdi nagusia; 'Xurdinen kontzertua', mus txapelketa eta bertso afaria izango dira 2



ileapaindegia berritua

har ezazu zure txanda

**943 671 427**



**Tolosa** » Eskualdeko egunkariak hainbat ekitaldi antolatu ditu bere bosgarren urtemuga ospatzeko asmoz.

#### ESTI EZEIZA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak bosgarren urterrena bete du aurten. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Ospakizun jaialdi handiena larunbat honetakoa izango da, non haur, gazte eta helduentzako ekintzak gauzatuiko diren.

Eskualdeko euskarazko egunkariaren urteurreneko ospakizunei arratsaldeko 17:00etan emango diete hasiera. Lehendabizi, Xurdin eta bere lagunak prestatu duten azken emanaldia aurkeztuko dute. *Xurdinen kontzertua* izeneko lan berri hau Beotibarren izango da ikusgai. Sarrerak dagoneko salgai daude egunkariaren egoitzan. Hala ere, egunean bertan ere erosi ahal izango dira Beotibar frontoiko leihatilan. Prezioari dagokionez, HITZAko harpidedunek hiru euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek, bost. Izan ere, egunkariko arduradunek harpidedunak nolabait saritu nahi izan dituzte.

Ondoren, 18:00etan hasita, mus txapelketa azkarra jokatuiko da Oargi mendi elkartearen egoitzan. Parte hartu nahi duen bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu. Irabazleek Tolosako Isastegieta sagardotegian afaria eramango dute sari gisa. Bigarren eta hirugarren geratzen direnen artean berriz HITZAko materiala banatuko da.

Festari jarraipena emateko, toki berean, bertso afaria ospatuko da. Bertan, tolosaldeko eta leitzaldeko bertsolari onenariakoak izango dira, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Diego Riaño. Gai-jartzaile lanetan Asier Imazariako da. Afalostean, jaiari amaiera emateko, trikitilariekin kalejira egingo da. Hauek lagunduta poteo herrikoia egingo da Alde Zaharreko tabernetatik zehar.

#### 'Xurdinen kontzertua'

Sointek ekoizpen etxeak sortutako lan berri honetan, Xurdin ipotx urdinaren eta bere lagun Zirri, Borro, Haizeder eta Dofasol jaunaren



## HITZAren bost urteak OSPATZEKO jaialdi paregabea

istorioak kontatuko dituzte. Haurrei zuzendutako emanaldian musika izango da protagonista nagusienetako bat. Honi laguntzeko argiztapen muntaia izugarria erabiliko dutelarik.

#### Euskarazko komunikabideen buruzko mahai-ingurua

Apirilaren 9an euskarazko komunikabideen inguruko mahai-ingurua izango da Tolosako Udal Pleno aretoan. Jardunaldia 19:30ean hasiko da. Bertan, hizlari lanetan eskualdeko hainbat kazetari ezagun ariko dira: Martxelo Otamendi,

Berria egunkariko zuzendaria; ETBko albategietako buru den Jaime Otamendi; Jon Miranda, Txolarre irratiko zuzendaria, 28 kanaleko zuzendari den Jon Aldanondo eta Joxemi Saizar, HITZAko zuzendari ohia. Moderatzailea berriz, Irene Larraza Tolosako kazetaria izango da.

#### Bertso-afaria

Eskualdean bertsolaritzak duen garrantzia ikusita, eta hau, betidanik, komunikaziorako oso tresna garrantzitsua izan dela kontuan hartuta, bertso-afaria antolatu du

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK larunbaterako. Bertan Amaia Agirre billabonatarra, Larraulgo Jexux Mari Irazu eta Diego Riaño leitzarra ariko dira bertsoan. Aski ezagunak dira hauek eskualdean nahiz kanpoan. Lehendabiziko biek 2007ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hartu zuten parte. Agirre finalerdietaraino iritsi zen, eta Irazu, finalera, bosgarren postua eskuratu. Riaño berriz, Nafarroako bertsolari txapelketan lehiatu zen orain gutxi. Gainera, Agirre nahiz Riaño Hamaika Berteutekimeneko kide dira.

#### » EGITARAUA

##### Apirilak 5, larunbata

■ **'Xurdinen kontzertua'**. Tolosako Beotibar pilotalekuan izango da 17:00etan. Sarrerak harpidedunentzat 3 euro eta gainerakoentzat 5 euro.

■ **Mus txapelketa azkarra**. Tolosako Oargi elkartean izango da 18:00etan. Irabazleentzat bazkaria ala afaria Isastegieta sagardotegian. 17:30etik aurrera Oargin izena eman behar da. Bikote bakoitzak 10 euro ordainduko du.

■ **Bertso afaria**. Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Diego Riaño bertsolariekin, Tolosako Oargi elkartean, 21:00etatik aurrera.

■ **Afalostean**. Poteo herrikoia, trikitixaz lagundurik.

##### Apirilak 9, asteazkena

#### ■ Euskal komunikabideei buruzko mahai-ingurua.

19:30ean, Tolosako udaletxeako pleno aretoan eskualdeko kazetari ezagunak izango dira hizlari: Martxelo Otamendi, Jaime Otamendi, Joxemi Saizar, Jon Aldanondo eta Jon Miranda.

**Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Diego Riaño izango dira bertsoan, afaria alaitzeko asmoz**

**Xurdin eta bere lagunak azken lana izango da ikusgai larunbat honetan Beotibarren, 17:00etan**

Bertso-afarira joan nahi dutenek ondorengo lekuetan eskura ditzazkete sarrerak: Zizurkilgo Aurrera tabernan, Tolosako Raku eta Denak-en, nahiz Leitzako Torrea tabernan. Baita HITZAren egoitzan bertan ere.

Harpidedunek 20 euroren truke erosi ahal izango dituzte bertso afarirako txartelak. Gainontzekoek berriz bost euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Hau da, 25 euro.

Bestalde, eskualdeko euskarazko komunikabideak, afarirako sarrerak bartzuk harpidedunen artean zozketatzea erabaki du. Honetarako, interesatuek bihar arte izango dute zozketan parte hartzeko aukera. Honetarako goizetan, 14:00ak bitartean deitu dezakete ondorengo telefono zenbakira: 943 65 56 95.

## U Urteurrena

III. urteurrena

**BELEN JAUREGIONDO MENDIA**  
(1955-1-6, 2005-4-2)



Ur haundiek ezin dute Maitasuna iraungi, ez eta ibaiek ere itho.

Joan Mari, Iker eta Lorea, Nagore eta Iñaki


BEASAIN  
2008ko  
apirilaren 2a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilerriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**E Elkarrizketa**

**JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE** › Komikilaria

**Tolosa** › 'Galtzaundi' aldizkarian argitaratu diren bere komikien erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean; txikitatik marrazki ugari egitearen ondorioz ikasi du komikiak egiten.

**INIGO TERRADILLOS**

Igandera bitarte ikusgai dago Tolosako Kultur Etxean Joseba Antxustegi etxartek (Pasai Donibane, 1967) *Galtzaundi* aldizkarian 11 urtetan zehar eginiko komikien erakusketa. Ostiralera arte 17:00etatik 20:00etara ikusteko aukera izango da, eta larunbatean eta igandean 10:30etik 13:30era.

**Zenbat komiki daude ikusgai erakusketan?**

11 urtetan *Galtzaundi*-rako egin ditudan komikien zati bat dago. Etxean 200 edo izango ditut, eta hemen, berriz, 100 daude.

**Gai ugari jorratu dituzu urteetan zehar.**

Bai, herri, Euskal Herri nahiz mundu mailako politika, euskara, berdintasuna, kultura... denetarik pixka bat dago.

**Noiz hasi zinen komikiak egiten?**

Nik ere ez dakit noiz hasi nintzen. Marrazkiak egitearen eboluzioa izan zen. Beti marrazkiak egiten egoten nintzen, eta halako batean hasi nintzen komikielkin, gaur egunera arte. Gutxi gorabehera 16 urterekin edo lehenago hasiko nintzen.

**Denbora ugari daramazu beraz.**

Jendeak nire lana baloratu du, horregatik jarraitu dut lanarekin.

**Ez da erraza izango komikiak egitea.**

Egunero balitz orduan bai izango litzateke zaila. Egunero egitea erronka bat da. 15ean behin egitea, nire kasuan bezala, afizioa da. Zailtasuna ere bada, komikiak ez izatea gaurkotasuna. Izan ere, nik komikia orain egiten badut 7 egun barru publikatzen da, beraz, aurreikuspen moduko bat egin behar dut 7 egun barru zer egongo den pil-pilean. Egin dudana azken komikiak, esaterako, hauteskundeekin jarraitzen du, ondo dago, baina daukan gaurkotasuna ez da frexkoa. Askotan, bete betejan josten asmatzen dut gaiarekin, eta ni ere harrituta geratzen naiz, zorte kontua ere bada.

**Nola da komiki bat egiteko prozesua?**

Hasieran *Galtzaundi*-koek gaiak esaten zizkidaten, baina gaur egun, nik asmatzen dut gaia. Hala, aktualitatea jarraitzen dut, eta gaiak izaten ditut buruan. Uneoari ni naiz pentsatzen, eta pare bat gai interesgarri edo ditudanean papelean hasten naiz marrazten, eta orduan ikusten dut zein geratzen den ondo. Gero, eskaneatu egiten dut, eta ordenagailuan egiten ditut



I. TERRADILLOS

# «Egoera batzuk ironiaz azaleratzea da asmoa, irribarrea sortzeko»

azken ukituak. Eta behin hori egin da aldizkarira bidaltzea baino ez da geratzen.

**Jendearen erantzuna nolako izaten da?**

Ezagutzen nautenek adarra jotzen didate, ulertu duten ala ez, gustatu zaien ala ez. Baina, jende asko dago ezagutzen nautenak eta ez dakitenak ni naizela komikiak egiten dituen. Egun hauetan jende askok esan dit ez zekiela ni naizela komikiena, eta erakusketarengatik konturatu direla; harrituta geratu dira. Galtzaundiko komikiak gustatzen zaizkion jendeak deskubritu du ni naizela haiek egiten dituen, oso bitxia izan da.

**Tolosaldeko 'Galtzaundi' aldizkariako ezekiz badituzu komikiak**

**eginak beste hainbat aldizkari-erentzako ere.**

*Ostiela*, *Branka* eta *Oarsoaldeko* hamabostekarian ere publikatu izan dituzte nire komikiak. Komiki lehiaketetan ere parte hartu izan dut, eta baten bat ere irabazi izan nuen. Irabaziz gero saria komikia publikatzea izaten zen, eta hori oso garrantzitsua zen.

**Nola ikasten da komikiak egiten?**

Autodidakta naiz. Urteen ondorioz eta mila aldiz marraztu dudalako ikasi dut. Marrazkigintzako ikastaroren bat egin dut, baina komikigintzakorik ez. Ordenagailuko programa ere neure kabuz ikasi dut, baina behar ditudan ukituak egiteko adina. Garrantzitsua da baita ere beste komikiak ikustea.

**Zein komigile duzu gustokozuk?**

*Berria* egunkarirako komikiak egiten dituzten Olariaga eta Valverde asko gustatzen zaizkit. Marrazki bizidunetan Juanma Berasategi aipatuko nuke; bere bizi osoa marrazkigintzari eskaini dio, eta hemen marrazki bizidunak badaude,

**@ Irudietan.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK VII. Argazki Lehiaketa antolatuta du Aste Santuan ateratako argazkiekin. tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali daitezke argazkiak. Gure webgunean, irudietan izeneko atalean daude ikusgai partez-hartzaile guztien argazkiak: [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

neurri batean, berarengatik izan da.

**Marrazkiak egiten jakitea baino gehiago da komikiak egiten jakitea.**

Ez, mezuarekin asmatu behar da. Marrazkia egin baino lehen gaia izan behar duzu, eta gai horrekin zein mezu zabaldu behar duzun jakin behar duzu, eta horretarako testu eta marrazki egokia aurkitu behar duzu. Beraz, askotan bertsoekin bezala izaten da, hasiera zaudete, baina bukaeratik hasten zara, mezu izan behar baituzu garbi.

**Mezuarekin asmatzea ez da erraza?**

Ez. Herrian dabilten gertaeratik edo bestelako aktualitatetik hartu behar duzu gaia, eta pentsa-

**«Komikiak gustatzen zaizkion jendeak nik egin ditudala deskubritu berri du; bitxia izan da»**

**«Alkateei zuzenduriko komikiak daude, eta baita beste askori ere; ni ere agertzen naiz askotan»**

tu behar duzu argitaratuko den unean ere, oraindik pil pilean izango dela, ez dela lekuz kanpo geratuko.

**Zure ibilbidean somatzen al duzu aldaketarik komikiak egiteko orduan?**

Bai. Lehen marrazkiago ziren; gehiago marrazten nuen. Gaur egungoak komiki itxura gehiago dute. Espazio guztiek dute kolo-rea, marrazkia sinpleagoa da, eta ikusgarriagoak dira, deigarriagoak.

**Gustukoen duzun komikia?**

Asko daude. Tolosa eta Donostia hiriburuz izateko lehiarena, arruaren eta eskopetariena, gizon-emakumeen harremanena. Politikarekin, su-etenarena, Auzitegi Nazionalarena... asko daude. Gero, Tolosan bertan, Joxe, Antton eta Jokin alkateei zuzenduriko komikiak badaude, denentzat dago zer-bait. Ni ere ateratzen naiz hainbat komikitan.

**Zein helburu dute komikiak?**

Zirikatzeta eta pentsaratzeta. Egoera batzuk azaleratu ironia aplikatuz, irribarrea sortarazteko. Jende ongi pasatzea espero dut.

**Zer moduzko harrerari daizaten erakusketa?**

Oso ona. Jendea ari da etortzen eta gauzak galdetzen dizkidate, beraz, oso gustura nago.

**Iragarki laburrak**

**LANA**

■ **Etxeko lanak.** Esperientziadun emakumea, interina moduan etxeko lanak egiteko eskaintzen da. 646 76 39 34.

## E Elkarrizketa

IGOR SARASUA &gt; Erremontista ohia



I. GARCIA

## «Pilotak dena eman dit; Galarretan bizi guztia eman dut»

**Asteasu** > Azken partida jokatu eta gero, Galarretara lotuta jarraitzen du Igor Sarasua erremontista ohiak saskigile eta irakasle bezala.

### IMANOL GARCIA

Igor Sarasuak (Asteasu, 1972) hamahiru urte eman ditu erremontista profesional bezala. Aurreko asteburuan jokatu zuen agurreko partida Lizasorekin batera Altuna I.La eta Etxaberen aurka. 2004. urtean Banakako 2. mailako Txapelketa irabazi zuen eta horrek lehenengo mailako txapelketan parte hartzeko aukera eman zion.

### Nola sartu zinen erremontearen munduan?

Pilota munduan beti egon naiz, beti frontoian sartuta egoten nintzen.

Eta horrela, Errege Egun batean saskia oparitu zidaten eta horrekin hasi nintzen entrenatzen. 16 urterekin edo hasi nintzen Galarretan entrenatzen eta 20 urte egon naiz hemen sartuta.

### Entrenatza nahi duena etortzen da edo aukeraketa bat izaten da?

Galarretara etortzen zinen eta eskolan zegoenarekin hitz egin eta probatzen hasten zinen eta gero ikusi aurrera egiten duzun.

### Profesionalen noiz hasi zinen?

1995eko maiatzaren 27an izan zen

lehenengo partida, beraz maiatzaren egingo ditu hamahiru urte. Azkar pasa dira. Badirudi atzo zela.

### Gogoan duzu debuta?

Bai, polita izan zen. Zeberioaren aurka jokatu nuen. Azken partida agian gehiago gelditzen zaizu grabatuta. Lehenengo partidaren ondoren bide bat duzu aurretik, baina azkeneko egunarekin badakizu beste partidarik ez dagoela eta oroitzen gehiago gelditzen dira.

### Nolakoa izan zen azken partida hori?

Ez in izan genuen irabazi, baina hori guztia kenduta oso ondo. Jendea ere etorri zen ikustera.

### Nola izaten da erremontista baten jarduna?

Astean lau aldiz partidak izaten

dira, konbinazioak aldatuz. Partida bat jokatu bikote batekin eta bere horretan gelditzen da. Gero hurrengoa beste batekin jokatu dezakezu. Gero eta gehiago irabazi, orduan eta partida zailagoak izaten dituzu. Txapelketa gehiegirik ere ez da izaten.

### Ohiko partida horietan motibazioa zein izaten da?

Partidak irabaztea eta nolabait leku bat izatea. Gero eta partida gehiago izan, orduan eta estuago izaten dira partidak. Apustularientzat partidak ahal den parekatuenak izatea komeni da.

### Nolako osasuna du erremontek ikusle goaren aldetik?

Ostegunetan eta larunbatetan ondo, astearte eta igandetan gutxiago. Nik hasi nintzenezan Iruñe-

an bi-hiru ekitaldi izaten ziren eta Galarretan beste hiru. Gero Iruñeko jaitsi egin zen eta hango ekitaldi bat hona ekarri zuten, Galarretara. Lehen partida gehiago jokatzeko genituen.

### Erremontean jokatzeko gain, beste lan bat izan duzu?

Orain arte ez. Azken lau urte hauetan monitore bezala aritu naiz eskolan.

### Erabat lotuta, beraz, erremontera eta horrela jarraituko duzu.

Bai, erremonte eskolan jarraitzen dut eta saskigile bezala ere hasi naiz lanean.

### «Azkenarekin badakizu partida gehiago ez direla izango eta oroitzen gehiago geratzen dira»

### Zer moduzkoa da irakasle bezala aritzea?

Gustura. 16, 17, 18 urte eta hortik gorakoak ere bai. 16 urte inguru da adin polita hasteko.

### Eta gazte asko animatzen dira?

Ez gehiegi. Hona etorri beharra dagoela du erremontek. Eskuz, baina, edozein frontoitan aritzeko aukera duzu.

### Saskiarekin jolastan denez, zailtasun handiagoa izango du erremontek pilotaren beste modalitateekin alderatuta.

Aurretik oinarri pixka bat behar duzu, pilotan aritua izatea. Joko azkarra da erremontea. Paretan ondo sartzea da zailena. Pilotak errespetu handia ematen du. Hasiaren ez diozu tankera handirik ematen pilotak zer egingo duen eta ia denek beldurra ematen die paretan ondoan.

### Zer moduz saskiak egiten?

Hilabete bat daramat. Saskigile bat jubilatua egin behar zela komentatu zidaten eta orain beste ezer ez nuen eta aukera polita ikusi nuen. Lan polita da. Pilotarietako bakarrik egiten ditugu Galarretan bertan.

### Zer eman dizu pilotak?

Guztia eman dit. Bizi guztian Galarretan egon naiz. Lehen partidak izaterakoan tentsio gehiagorekin bizitzen nuen. Orain beste lasaitasun batekin hartzen dut eta aste-buruak libre ditut. Gehiena faltan botako dudana aldagelak giroa izango da.

**Hirukide**  
KALITATEKO HEZKUNTZA

www.hirukide.org

**IPARRAGIRRE**  
SACARDOFECIA

**Aprilaren 26' arte ZABALIK eta botilan urte osoan**

Osifaga auzoa / Hernani 943 55 03 28  
Asteazkenetik larunbatera gauez zabalik, larunbat eguerdian ere bai

[www.iparragirre.com](http://www.iparragirre.com)



## Bidegorria bukatzeko gutxi falta da

**IKAZTEGIETA** ■ Legorretatik Tolosaldera iritsi da bidegorria. Ikaztegieta lurretan ikus daiteke dagoeneko oinezkoentzako eta txirindularientzako bidea. Oraindik ez du kolore gorririk, baina herritarrek erabiltzen dute. Ikaztegieta bertan ez dago bidegorria, errepideak ez baitu zabalera aldetik behar den metro kopurua ematen. Beraz, herria zeharkatzeko espaloia era-

bili beharko da. Ermitaren parean gurutzatu egin behar da alde batetik bestera, zebrabidearen bidez. Bidegorriaren zehar zutabe dizdiratsu batzuk daude, iluntzen duenean seinale gisa, baina ez bide osoan zehar, egurrezko batzuk ere badira eta. Beraz, Goierriatik Tolosalderaino laister egin ahal izango da oinez ala bizikletaz ere, segurtasunez, bidegorriaren bidez. N.U.

## Sagarrondoaren txertaketaz

**Bedaio** ■ Artubi elkarteak antolatutako ikastaroan 42 lagunek hartuko dute parte. Gero, Astigarragan bertan bazkalduko dute.



Sagarrondoak nola txertatu ikasiko dute Astigarragan. HITZA

### NEREA URBIZU

Datorren larunbatean, Bedaioko Artubi elkarteak antolatutako sagarrondo txertaketa ikastarora joango dira izena eman dutenak, astigarragara, hain zuzen. Ikastaro honekiko interesa 42 lagunek erakutsi dute Artubi elkartearen. Autobusa goizean aterako da, datozen egunetan zehaztuko duten orduan. Bedaiotik abiatuko da eta Alegian ere geldituko da. Buelta ordu egokian egingo dute.

Han, Astigarragan, Josuk eman-gotu dituzten eskolak, sagarrondoan ondo zaintzeko sekretuak eta honen inguruko hainbat gomendio.

Ondoren, Bereziartua sagardo-

tegian bazkaria egingo dute; ondo zaindutako sagarrondoetako sagardoa dastatuko dute beraz.

### Urte osoan zehar ekitaldiak

Bedaiok azken urtean hartu duen bideari jarraituz, hilabeteko gutxienez ekitaldi bat egingo du eta

hala dago antolatuta dagoeneko. Honela, maiatzaren 8an urtero ospatzen duten Harri Jaia egingo dute, garai batean izandako kazkabarra gogoan izanik eta segidan, hau da; maiatzaren 9an, Kultur As-teburua hiru egunetan zehar egingo dute.

## Laburrak

### Lucia Arenasen margolanak jubilatuenearan

**ALEGIA** ■ Alegiko jubilatuen tabernan erakusketa aldatu berri dute, eta oraingoan Lucia Arenas tolosarraren margolanak izango dira ikusgai. Asteartetik igandera bitarteko dago hara joateko aukera, goizez eta arratsaldean, tabernaren ondutegiaren baitan.

### Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria gaur izango da

**ALEGIA** ■ Gaur, haur liburuaren nazioarteko eguna dela kontuan izanik, Alegian Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria izango da. 18:00etan egongo da Alegiako libururtegian, Kultur Etxean bertan.

### Jai batzordeak gaur lehen bilerara egingo du

**ALEGIA** ■ Alegiko festak uztaillan dira, karmenak, hain zuzen, baina dagoeneko festak antolatzeko lehen bilerarako deialdia egin dute, dena antolatzen hasteko eta jaiak forma ematen hasteko. Gaur izango da lehen bilera hau 19:00etan, Kultur Etxean.

### GPSa erabiltzen ikasten hasi dira Kultur Etxean

**ALEGIA** ■ Kutxak antolatutako ikastaroen baitan, Alegian orientazio ikastaroa aukeratu zuten bestein artean. Bertan, GPSa erabiltzen ikasiko dute astean zehar. Larunbatean, ibilaldi bat egingo dute.

## Triatloi taldeak hasi du denboraldi berria

### ERREDAKZIOA

Tolosaldeko triatloi taldea hasi da berriz ere denboraldian. Durango eta Oñatin izan dituzte triatloiariek lehen hitzorduak, bertan jokatu baitira Euskadiko zirkuituko lehen bi duatloiak distantzia motzean (8-40-8). Aurten berrikuntza askorekin hasi da taldea, 12 partaide izatek 27 izatera pasa baitira urtebetean. Iparkal 2002 Kaldere-riaren laguntza ere izango dute: ilusiorik beraz ez zaie falta.

Oñatin, TTT-Iparkaleko 14 kirolarik hartu zuten parte eta bertaratu zirenen arteko talderik jendetsuena izan zen. Lastima taldeko saillkapenean lehen hamarren

artearen ez sartzea 28 talderen artean, taldekide baten arazo mekanikoak medio. Urte osoan emaitza onak lortu dituzte, duela hamarkada bat bezala Euskadiko talderik indartsuenetarikoa bat bilakatzeko asmoz.

### Hurrengoa Azkoitian

Datozen hitzorduak Azkoitian eta Arrigorriagan izango dituzte. Bide batez «ezin utzi ahaztu gabe Unai Aizpuru eta Igor Aranburu taldekideak», bi hauek Alpeetan jokatu berri den Pierra Menta, mendi eskiko nazioarteko proban lehiatu baitira. «Bejondeiela bie!» taldearen partez.



Tolosaldeko triatloi taldeko kide batzuk, Oñatiko proban. HITZA

txokoa **h**

emanaldirako  
**2 sarrera pare**  
zozketan, deitu eta eskuratu


**Soledad Ruz...**  
**FLAMENKOA**

Ostirala, apirilak 4 • 20:30ean  
Tolosako Leidorren



**4 sarrera pare**  
zozketan, deitu eta eskuratu

**hitzak 5 urte**



### Bertso afaria

Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu eta Diego Riaño bertsolariekin.  
Larunbata, apirilak 5 • 21:00etan  
Tolosako Oargi Elkartearen





Lizartzako bertso eskolako haurrek zuzenean parte hartuko dute Bertso Eskolaren Egunean. HITZA

## Bertso Eskolaren Eguna antolatu dute larunbatean

**Lizartza** » Haurrentzat bertso-antzerkia egongo da 12:00etan eta 22:30ean sei bertsolariarekin bertso saioa.

### ASIER IMAZ

Lizartzako Bertso Eskolaren Eguna ospatuko dute larunbatean herrian. Bertso eskolaren inguruan mugitzen den herritarren ekimenak bi ekitaldi antolatu ditu auzo-lanean, «bertso eskola herrira ateratzeko eta inongo diru laguntzarik ez dugunez, denok ondar aletxo bat ipini dezagun».

Egurdian bertso-antzerkia antolatu dute eta iluntzean berriz puntako sei bertsolariarekin bertso saioa.

### '1,2,3... Inaxito'

Lehen ekitaldia 12:00etan izango da eta «batez ere haurrei zuzendua» egongo da. *1,2,3... Inaxito* bertso-antzerki «bizi eta atsegin honen, batez ere haurren irudimena landu nahi du; sormena». Eguna inguruan lanean dabilzan herritarrek *1,2,3... Inaxito*, lau bertsolari talde baten ideia izan zela aipatu dute; «haurrak ere, jolastuz bertsoaren mundura inguratzen joan daitezke».

Bertso-antzerkian zenbakiekin jolasten da, «0,1,2,3,4,5,6,7,8,9 eta 0 gorde egin dira!; ondo gorde, gainera! Zein zenbaki da luze bezain argala eta sudur luze-luzea duena?, eta hanka luze, buruhandia?».

Ezusteko bat baino gehiago egongo dela ere aipatu dute antolatzailer lanetan dabilzan herritarrek. Horien artean bertso eskolako haurrak bertso-antzerkian parte hartuko dutela azaldu zuten,

une batean ikasia erakusteko aukera izango dutelarik.

**Egaña, Mendiluze, Sorozabal, Zubeldia, Lujanbio eta Lizaso** Lizartzako Bertso Eskolaren Eguna saio indartsu batekin amaituko dute. 22:30ean Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso oholtza gainera igoko dira. Josu Goikoetxea gidari dutela. Sarreari dagokionez 8 euro izango dira.

### «Haziak izango baitu uzta»

Bertso Eskolaren Eguna antolatzaz gain, herritarren ekimenak zergatiak ere argitu nahi izan ditu. Horretarako bertso eskolaren oinarrietara jo nahi izan dute, «haziak izango baitu uzta guk laguntzen diogun heinean».

Lizartzako bertso eskola «xumea bezain interesagarria» suertatzen dela argitu nahi izan dute. «Orain dela hiru urte inguru jarri zen martxan zazpi urtetik aurrerako haurrekin. Gaur egun 6 urterekin ere hasten dira, Bertsozaleen Elkartetik irakurtzen jakitea beharrezkoa ez dela azaldu baitzigu-ten». Hasierako proiektu hartan «haurrak Euskal Herriko kantak kantatzen zituzten, antzerki antzeko bat ere kantatu zutelarik». Aurten berriz, Bertsozaleen Elkartearekin harremanetan jarri ondoren, Nagore Soroa ibartarra dute bertso eskolan irakasle, «programazehatz batekin proiektu serioa-za eta mundura mugituko gara aurten. Haurrak kanpotik oso gustura ikusten dira. Bertsoak egiten hasi dira eta mikrofonora gerturatzean bertsolariak zeinuak nola egiten dituzten ikusten duzu, eskuak atzean jarri eta abar».

### Bi helburu larunbatean: euskara eta jarraipena

Bertso-eskolaren ibilbide berriari jarraipena eman nahi zaio eta horretarako bi helbururekin irtego dira kalera larunbatean. Bi galdera luzatu dituzte herri ekimenetik helburu horiek arrazoitzeko: «Zergatik bertso eskola herri euskaldun batean? Zergatik jaialdia bertso eskolaren alde?».

Lehen galderari euskara ardatz hartuta erantzun diote, «oso garrantzitsua iruditzen zaigu haurrak euskararekin jolastea, barnean dutena azaltzen ikastea eta bertsoaren bidez besteak dioena entzun eta eztabaidatzen ikastea». Lizartzara kanpotik etorri diren herritarrek ere kontuan izan dituzte kalera ateratzeko garaian, «hizkuntza bizia eta erakargarria eskaintzen badiogu egingo ditugu euskaldun».

Bigarren galdera azaltzeko garaian, «zergatik jaialdia bertso eskolaren alde?», proiektuaren jarraipena izan dute hizpide bertso eskolaren inguruko herri ekimeneko partaideek; «proiektuaren jarraipena bermatu nahian urte askotako bokazioarekin gatzoz, horretarako saneatuta hasi nahi dugu. Gipuzkoako bertsozale elkartetik irakaslea eskatu genuenean, urteko bere gastuak nahiz behar zituen baliabideen kostua guk ordaintzeko asmoa hartu genuen guraso taldean. Gaur egungo udalari eskatu gabe, finantza bideak lortzeko gai izango ginela pentsatu genuen. Herri ekimena berpiztu nahi dugu gure kulturaren mesedetarako. Larunbatean egingo dugun Lizartzako Bertso Eskolaren Egunean lortzen dugun dirua bertso eskola laguntzeko erabiliko dugun».

## «Poliki-poliki herri txikietara iristea da helburua»

**BIXENTE GOROSTIDI** » Berastegiko bertso eskolako irakaslea



ASIER IMAZ

**Berastegi** » Aurtengo ikasturtean jarri dute abian bertso eskola herrian; ateak oraindik zabalik aurkitzen dira.

### A. IMAZ

Berastegiko bertso eskolako irakaslea da Bixente Gorostidi (Amezketan, 1973). Aurtengo ikasturtean jarri dute martxan proiektua eta hiru haur bakarrik aurkitzen baldin badira ere gaur egun, etorkizunera begira itxaropentsu aurkitzen dira; haur, gazte zein helduentzat ateak zabalik baititu Berastegiko bertso eskolako.

### Nola jarri zen martxan bertso eskola?

Hasieran helduen talde bat sortzeko helburua genuen. Inigo Gorostartzu, aurten txapelketan ibili den bertsolari berastegiarra, Betelura (Nafarroa) joaten zen bertso eskolara eta Berastegin bost sei gazte bertsoan ibiltzen zirenak aurkitzen zirela aipatzen zuen. Horiek lanarengatik eta egunengatik ezin izan genuen talderik sortu, baina txikiek behintzat hasi ginen herrian bertso giroa zabaltzeko asmoz. Haurrak ekintza gehiagotatik apuntatuak zeudelako multzo handiagoa egitea ez zen posible izan baina taldea handitzen joango dela uste dugu. Helburua ere pixka bat hori da, herri txikietan bertso eskolak sortzea. Hezkuntza araututako proiektu honekin herri handietan aukera gehiago dituzte bertsolariak lantzeko herri txikietan baino. Helburua poliki-poliki herri txikietara iristea da.

### Zer lanketa egiten duzue?

Oso oinarritzko lanketa egiten dugu orain; bertsoak nola egiten diren, doinu batzuk ikasi, errimak landu eta gero hutsuneak betetzeko ariketak.

### Ikasleek lehen kontaktua al dute teorikoki bertsolariarekin?

Bertso eskola mailan bai. Horikusten duzu herri txikietatik handietara alde handia dagoela. Hala eta guztiz ere, ez da hutsetik hastea bezala izan; doinu asko ezagunak zituzten, errimaren inguruan zer-bait bazekiten... nolabait etxetik edo ezagutzen zuten bertsoa.

### Izena ematerik ba al da oraindik?

Bai. Bi edo hiru hilabete hauetan nahi duena joan daiteke. Hasieratik argi esan genuen hau proba moduan izango zela, eta ikasturtean zehar norbaitek azaldu nahi baldin badu, asteartean biltzen gara herriko eskolan 19:00etan. Agertu, probatu, ikusi eta...

### Haurrentzat bakarrik al dira eskolak?

Ez, ez, erabat irekia da. Amezketan adibidez guraso pare bat agertzen dira beraien semeekin eta horrela oso eskola berezia sortzen da.

### Zalantzan dagoenari...

Gure helburua ez da bertsolariak sortzea. Lehenik bertsoa ezagutu dezaten saiatzen gara, bertsoetan erabiltzen diren teknikak bizitzan nola aplikatu litezkeen ikusarazteaz gain. Jolastu ahala, gustatzen baldin bazaie, bertsoan ikasiko dute. Bitarten lanketa honekin besteak beste hizkuntza aberastuko dute, harremanak landuko dituzte ofiziolako lanetan eta azkenean bizitzeko modu bat landuko dute.

# Baztarlako antenako bidea moldatzeko eskaera egin dute

**Leitza** » Ostiralean egindako batzarrean hartu zuten erabakia, baita Kontseiluarekin lanean jarraitzeko ere.

## ERREDAKZIOA

Joan den ostiralean egindako osoko bilkuran jorratutako gaiak beste zenbait bileretan baino gutxiago izan ziren. Kontseiluak aurkeztutako elkarlanerako proposamena aztertzeaz gain, Baztarlako antenako bidea moldatzeko eskaera ere egin zuten, martxoaren 25ean euritean eta elurteen ondorioz kalteak jaso baitzituen.

Baztarlako antenako bidea moldatzeko eskaera urgentziaz sartu zen, hori dela eta ez zegoen gai-zerrendan.

## Baztarlako antenako bidea

Joan den astean, martxoaren 25ean, euritean eta elurteen ondorioz bide honetan lur-jausia gertatu zen. Aspaldidanik mantentzen diren erakundeak, bidearen egoera oso kaskarra zen eta lur-jausian honek zerikusirik izan zuten.

Hori konpontzeko eman beharreko urratsak eman dituzte jada eta osoko bilkuran esan zuten bezala, «Tardoako gaina eta Baztarlako antenalan zuten bidearen egoera tamalgarrria dela kontutan izanik eta gertatutako ezbeharren modukoak saihesteko helburuarekin» Leitza Udalak ondorengo eskaera-akordioa hartu zuen



Bi gai horiez gain, 2007-2008ko ikasturteko haur-eskolako tarifak ere onartu zituzten. N. GARZIA

ostiralean: «Erortza konpontzeko egindako kudeaketan aurrean Herri Lan, Garraio eta Komunikazio eta Berrikuntza, Enpresa eta Lan departamentuek erakutsitako jarriera eskertzea», eta «bidearen egoera oso kaskarra dela kontutan izanik, eta etorkizunean ezbehar gehiago gerta ez dadin, Baztarlako antenarako bideko zoladura, kurnetak eta ubideak epe motzean behar bezala molda ditzaten eskaera formalki luzatzea».

Urgentziaz sartu zen gai hone-

taz gain, eta ohiko puntuez gain (azken batzarreko aktaren onspena), 2007-2008 ikasturteko haur-eskolako tarifak onspenatu zituzten, eta amaitzeko, Kontseiluak aurkeztutako elkarlanerako proposamena ere aztertu zuten.

## Elkarlanerako proposamena

Proposamen honen arabera, bai Leitza Udalak, bai Kontseiluak zenbait konpromiso hartuko litzakete, euskararen normalkuntza bultzatzeko. Hauek dira Leitza U-

dalak hartutako konpromisoak: «Leitza Udalak bat etorri nahi du Kontseiluak udalen hizkuntza-politika egokiak lortzeko abiatu duen dinamikarekin. Bide horretan, Leitza Udalak bere hizkuntza-politikaren ebaluazioa babesten du, eta bere aldetik beharreko laguntza tekniko eskaintzeko berrondatea adierazten du. Halaber, egindako ebaluazioa oinarritzat harturik, administrazio honen hizkuntza-politikan egon daitezkeen gabeziak konponbidean jar-

tzeko konpromisoa hartzen du Leitza Udalak».

Kontseiluak, bere aldetik, «herriko euskalgintzako eragileekin elkarlanean, Udalaren hizkuntza-politikaren lehenengo neurketa» egiteko konpromisoa hartu zuen, baita Udalaren hizkuntza-politikan ematen diren aldaketan jarraitzea eta bigarren neurketa egiteko ere, «egondako eboluzioa aztertzeko».

## Kontseilua

Kontseiluaren eginkizun nagusietakoak euskararen normalkuntza edo berreskurapen osoa lortzea da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean. Zentzu honetan, 1999. urtean hona helburu hori lortzeko zenbait urrats egin dira jadanik, besteak beste, Bai Euskarari Akordioa sinatzea, Euskararen Normalizaziorako Konpromiso Politikoa sinatzea, Euskararen Normalizaziorako Plan Estrategikoa abian jartzea eta enpresen eta erakundeen artean Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzea.

Kontseiluaren lan-ildoetako bat udalen hizkuntza-politikaren azterketa da. Ildo horretan lanean aritu da azken urteotan eta hainbat ekarpen egin ditu, besteak beste, udalen hizkuntza-politika neur-gailu bat sortu eta 66 herrietako hizkuntza-politika neurtu du, Akordio Soziopolitikoekin adosturik *Euskararen ordenantza eredugarriak* arau-markoaren proposamena sortu du.

Bide horretan sakontzeko, oraingoan Kontseiluak udalen hizkuntza-politikaren neurketa herri gehiagotara zabaltzeari ekin dio, ekimena Euskal Herriko ahalik eta herri gehienetan ebaluazio hau hedatzeko eta horregatik ostiralean Leitza Udalaren elkarlanerako proposamena sinatu zuten.

# 20 pilotarik parte hartuko dute Eskuz Banakako Txapelketan

**Pilota** » Etzi hasiko da Zeanurin eta enpresa bakoitzak 10 pilotari aukeratu ditu, Barriola eta Bengoetxea VI.a barne.

## ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian 2008ko EPELen Eskuz Banakako Txapelketa aurkeztu zuten. Bertan izan ziren txapelketan parte hartuko duten pilotariak (Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea ere han ziren), BBKko ordezkariek, bertako kirol agintariak eta EPE-Leko buruzagiak.

Banakako Txapelketa ostiralean hasiko da Zeanurin, Zubieta eta Eulateren arteko pilota partidarekin eta ekainaren 8an amaituko da, 2 hilabeteren ondoren.



Txapelketaren aurkezpena atzo egin zuten, Bilbon. HITZA

Asegarcek ondorengo pilotariak aurkeztu ditu: Bengoetxea VI.a, Olaizola II.a, Beloki, Patxi Ruiz, Koka, Leiza, Olaizola I.a, Peñagarikano, Agirre eta Begino.

Aspek, berriz, pilotari hauek aukeratu ditu: Barriola, Gonzalez, Eugi, Martinez de Irujo, Xala, Eulate, Laskurain, Pascual, Zubieta eta Urberuaga.

# Informatikako ikastaroetan izena emateko epea zabalik

**Informatika** » Jende gehiagok izena eman ezean bertan behera geldituko dira antolatutako ikastaroak.

## ERREDAKZIOA

Teknologia berriak emakume eta hiru garren adinekoei hurbiltzeko antolatutako ikastaroetan ez du behar adina jende izena eman. Cederna-Garalurtik jakitera eman dutenez, «emakumezkoena beteta dago, baina hirugarren adinekoetan 6 pertsona besterik ez dute izena eman eta gutxienez 8 behar dira ikastaroa eman ahal izateko». Inor gehiago apuntatu ezean, ikas-

taro hau bertan behera geldituko da. Ikastaroa apirilaren 7an hasiko da eta 22an amaitu, eta izena emateko 639 90 03 18 zenbakira deitu behar da. Windows programa, internet eta posta elektronikoa erakustea du helburua.

Bestalde, langileentzako antolatutako ikastaroei dagokienez, lehenengo ikastaroa ez zen atera (informatika ezagutzeko lehenengo urratsak) jende gutxi zegoelako. Langileentzako beste 2 ikastaro antolatutakoak (internet eta posta elektronikoko buruzketa bat, eta photoshopari buruzkoa beste), eta behar adina jende biltzen ez bada, hauek ere bertan behera geldituko dira. 948 62 51 22 zenbakira deitu behar da izena emateko.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Teléfonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/idea:** 687 410 022. anoeta/idea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra/idea:** 687 410 032. ibarra/idea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza/idea:** 687 410 118. leitza/idea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitza/idea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Alegia.** Haur liburuaren nazioarteko eguna ospatuko dute. Horretarako, 18:00etan Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria egongo da Alegiako liburutegian.
- **Alegia.** Jaiak antolatzeko lehenengo bilera izango da, 19:00etan Kultur Etxean. Batzorde hau irekia da eta alegiar guztiak bertara gonbidatu nahi dituzte.
- **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira. Azken eguna, apirilaren 18a.
- **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatuta eta erretiratu elkarteak Karrantzara (Bizkaia) txangoa antolatu du apirilaren 10erako. Izen-ematea, bulegoko ordutegian NAN eta Kutxako urrezko txartela aurkeztuz.
- **Ibarra.** Hilaren 12an egingo den II. Ziklo indoor maratoirako izen-ematea, Belabieta kiroldegian edo telefonoz (943 671544) goizez. 10 euro ordaindu behar da.
- **Orendain.** 19:00etan udaletxean, Eskolapioetan egingo dituzten etxe berrien zozketa izango da notarioaren aurrean. Puntuazio aldeetik berdinketak daude, eta notarioaren bidez erabakiko da pixuen jabetza zeinentzat izango den.
- **Tolosa.** Ostegunetan izango dira sanjoanetako Bordondantzarako

# Ipuin batean bezala...



### Aitziber Urkola

**(Tolosa).** «Disneyland Paris-eko sarrera gurutzatu orduko, ume bihurtu ginen berriro ere. Bertan Loti Ederaren gaztelu zoragarria ikus daiteke», azaldu digu Aitziber Urkola tolosarrak bere argazkia lehiaketara bidaltzerakoan.

entseguak 20:30etik aurrera Usabal kiroldegian.

- **Tolosa.** Haur Liburuaren Eguna: Tailandiako ipuina eta Andersen idazlearen bitzita kontatu dute 5-10 urteko haurrentzat Haur Liburutegian 18:00etan. Liburu maileraren eraman dutenek piruleta bana jasoko dute.
- **Tolosa.** Gerra Zibilean erreprosoa jasan zuten biktimen eta familien informazioa jasotzeko bulego Aranburun, astelehenean 16:00etatik 20:00etara, asteartean 09:30etik 13:00etara eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

### Erakusketa

- **Tolosa.** Joseba Antxustegietxarten azken 11 urte hauetan Galizia aldiak argitaratu dituen komikien erakusketa Kultur Etxean Aste egunean, 17:00etatik 20:00etara eta larunbat nahiz igandetan, 10:30etik 13:30era bitarte.
- **Tolosa.** *Marierpuru* ipuinari buruzko erakusketa Haur Liburutegian, ikastetxeetan egindako marrazkiak.
- **Alegia.** Lucia Arenas tolosarren margolanak ikusgai apirila osoan zehar, jubilatuen taberna asteartetik igandera bitarte.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkari adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

## hitza k 5 urte

hh **JAIALDIA** hh  
Apirilak 5 • Larunbata

hitza  
TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

**17:00:**  
Tolosako Beotibarren  
**Xurdi**en  
kontzertua.  
Sarrerak: Tolosako HITZ Aren  
bulegoan salgai,  
harpidedunentzat **3 euro**,  
besteentzat **5 euro**.



### 18:00: Mus Txapelketa azkarra

Tolosako Oargi Elkartean. Irabazleentzat bazkaria edo afaria Tolosako Isastegi sagardotegian.  
Parte hartzeko, 17:30ean Oargin bertan izena eman behariko da eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behariko ditu.

### 21:00:

**Bertso afaria**  
Tolosako Oargi Elkartean.  
Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu  
eta Diego Riaño bertsolariekin.

Txartelak salgai Zizurkilgo Aurrean, Tolosako Raku eta Denak eta Leitza Torre tabernetan. Harpidedunentzat 20 euro, besteentzat 25 euro.

**Afalosten poteo herrikoia, trikitixaz lagundurik.**

# Nafarroa

## Lilura eta bizipoza

Apirilak 4, ostirala  
**22:30ean**  
Olaederra Kiroldegian

Azkeni, Aipitiko  
**SABATZA DANTZA TALDEAREN**  
'Nafarroa-lilura eta bizipoza' emanaldia

Prezioa: 5 euro aldez aurretik  
'herriko okidegietan' salgai  
eta 7 euro leihaditan.